

IZAR

San Pedro egunean jende askok mendian jaia ospatzen dute. Zazpi urteko haur bat bere izena Izar da. Izarrek txantxangorri bati jarraitu zen. Txoriak umea Santa Luzia kobazulora zuzendu zuen.

Izar kobazuloan sartu zen. Hor umeak emakume oso polita eta ile luze-luzea aurkitu zuen; hau harri gainean eserita zegoen eta zilarrezko orraziarekin orrazten zuen bere ilea. Izarrek agurtu zuen eta – nor zara zu?- berari galdetu zen.

- Nire izena Mari da. – erantzun zuen.
- Nik zu ezagutzen zaitut. Euskal Herriko biztanle guztiek bezala. Lagundu ahal duzu? Galdu naiz eta nire gurasoak arduratuta egongo dira.

Orduan Marik esan zion:

- Orrazten lagundu eta etxeko bidea erakutsiko dizut!
Horrela haurrak Mari orrazten zuen bitartean, Marik ehuntzen zuen eta gure herriko istorioak kontatu zituen.

Ilun zegoen baina Izarrek ez zuen beldurrik, seguru sentitzen zen Marirekin zegoelako. Izarrek galdetu zuen:

- Zer ehuntzen duzu?
- Gizakien etorkizuna eta gure natura.

Izarrek bukatu zuen Mari orrazten eta haurra nekatuta zegoen. Horregatik Marik esan zuen – lo egin nire magalean!-.

Beranduago Izar esnatu zen eta etxeko ohean zegoen. Amets bat ematen zuen, baina ez zen amets bat, benetakoa zen; bere bizitza bezain benetakoa. Eta beti pentsatu zuen Marik laguntzen zuela, segurtasuna, konfiantza eta indarra emateko.

Eta hala bazan edo ez bazan
sar dadila kalabazan
eta atera dadila
Altsasuko plazan!![^]